

## XXV. "Errenteria Hiria Ipuin Lehiaketa"ren

ipuin irabazlea. Ereintza Elkarteak antolatuta eta Errenteriako Udalaren babesarekin<sup>1</sup>

# ALARGUNEK EZ DUTE ERABAKITZEN

Mikel Peruarena Ansa

**G**oizero bezala tea limoiarekin prestatu zuen senargaiak gosaltzeko eta muesli koilarakada bat bota zuen jogurt naturalean. Gosari arin eta indartsua. Hala behar zen eguna sendo hasteko. Lo egin ondoren beste egun bat izango zela uste izan bazuen ere, oraindik bezperako hitzak zeuzkan buruan eta eguneroko ohiturei eus-tea zuen horren kontrako erremedio onena.

Beste eztabaida bat izan zuten bezperan, hamaikagarrena. Eskerrak euskarak baduen hamaikagarrenaren jokerra! Aspaldi galdu zuen hasieran zintzo arraio eramandako kontua (lehen liskarra, bigarrena, hirugarrena...). Hamaikagarrena, beraz, eta azkena. Horrela behar zuen. Ezkondu egingo ziren eta kitto. Ez zen eztabaida gehiago egongo. Teak gozatu zuen bezperako eztabaidak ahosabaian utzi zion zapore mikatza. Ur basokada bat, ez bero, ez hotz, eta pronto lanerako.

Goizero bezala zortziak eta bederatziak tren hartu zuen senargaiak. Ez zitzaizkion atsegin ordu hartako trenak, etxekoandrez eta ikaslez gainezka joaten



1. Epaimahia: Juan Gartzia jaunak eta Mirentxu Larrañaga andereak osatu zuten.

baitziren, baina lanera garaiz iristeko ego-  
kiena zen ordu hartakoa. Gosariak zerbait  
gozatu bazuen ere, oraindik nabaritzen zuen  
bezperako zapora hura ahosabaian, behin  
eta berriro dutxatu eta halere garbitu ezinik  
gelditzen den orbanaren moduan. Baziren  
aste batzuk emaztegaiarekin hitz egin eta  
baiezkoa jaso zuenetik eta, harrez gero, gau-  
zak nahastu baino ez ziren egin. Hasieran  
erakargarri iruditu bide zitzaion ezkontzaren  
ideia, gero arazoak baino ez zizkion ikusten.  
Senargaiak ez zuen ulertzen non egon zite-  
keen arazoa; elkar maite bazuten, ezkontzea  
zen normalena, etorkizuna ondo bermaturik  
eduki ahal izateko.

Goizero bezala iritsi zen trenaren biga-  
rren bagoiko lehen atetik sartu zen senar-  
gaia. Trenez sarri ibiltzen direnek badakite  
nola izaten den kontua, bakoitzak bere atea  
eta jesarlekua gordeak izaten dituela baiti-  
rudi. Ez da komeni izaten gauza horien orde-  
na aldatzea. Ziurtasun batzuk behar izaten  
dira bizitzeko eta, besterik ezean, egune-  
ro ordu berdinean iristen den tren berdina-  
ren bagoi berdinean ate berdinetik sartzea,  
bada zerbait bizitza erabateko kaosa izan  
ez dadin. Emaztegaiarekin zuen harrema-  
nean ere hala behar zukeen: gauza bakoit-  
za bere lekuan eta bere garaian. Ordura  
arte dena bere lekuan egon zen, egia da,  
baina azken asteetan bazterrak nahasten  
hasi zen emaztegaia, guztia amiltzeko zorian  
jartzeraino ia. Agian pixka bat itxoin behar  
zuketela, eta beharbada elkarrekin bizitzen  
hasita frogatu lehenik, eta igual ez zekiela  
hori nahi ote zuen esanez bukatu zuen bez-  
peran. Senargaiari ulertezina iruditu zitzaion  
trenaren kristalak hain zikin egotea.

Goizero bezala zortziak eta hogeita  
lauretan iritsi zen senargaia betiko estaziora.  
Trenak bidaiarien begizuloetan erreparatu  
gabe okatu zuen jendea. Posible ote zen  
gero? Senargaiak behintzat ez zuen ulertzen  
nola gerta zitekeen, ordura arte maitemin-  
duak egon baldin baziren behintzat, ezkon-  
tzearekin hainbesteko zalantzak edukitzea  
hain juxtu orduan, une hartan, ez bazen  
behintzat emaztegaiak lehendik ere zalan-  
tzak zituelako harremanari buruz. Ez zegoen  
beste esplikaziorik. Zalantzak zituelako, ez  
zegoelako seguru, baietz esan zion hasie-  
ran, bada ezpada ere, baina bere burua  
loturik eta irtenbiderik gabe ikusi zuenean,  
zalantzak agertzen hasi zitzaizkion emazte-  
gaiari. Edo agian lehenagotik heldu zitzaiz-

kion zalantzak eta ezkontza proposatzeak  
bizkortu baino ez zituen egin. Zer esan nahi  
zuen, bestela, *ez zekiela seguru hori nahi  
ote zuen* esan zionean? Lasai pentsatzeko  
tarte bat hartu eta azken asteetako gertaer-  
ak buruz erreparasaten zituenean ondorio  
horretara iristen zen senargaia: emaztegaiak  
zalantzak zituen ezkontzeko, zalantzak zitue-  
lako harremanarekin Gauzak sinplifikatzeak  
halako egia gordinak ekartzen ditu batzue-  
tan. Baina, bai sinplifikatu beharra zeukan,  
ez zegoen beste erremediorik. Norbaitek  
hartu behar zuen gidaritza gauzak behingoz  
argituko baziren.

Goizero bezala lantokitik bi minutu eta  
erdira kokatua dagoen kafetegi modernoan  
hartu zuen senargaiak kafea, oinezkoak bei-  
rate beltzaren beste aldean haizearekin eta  
hostoekin lehiatzen ziren bitartean. Azken  
finean ez al zen bera etengabe deika ari  
zena? Zitak jartzeko proposamenak egi-  
ten zituena? Ez al zen emaztegaia etenga-  
be zitak jartzeko arazoak izaten zituena?  
Zeregin ugari izaten ohi zituena? Ordurako  
zeregin baino, aitzaki deitzen zien senar-  
gaiak, bera ere harremanaren etorkizunaz  
zalantzakor nonbait. Nola ulertu bestela  
ordu pizar batzuk libratzeko ezintasun hura?  
Posible ote zen hitzez hainbeste maite zuen  
pertsonarekin egoteko hainbeste arazo  
edukitzea emakumeak? Agian ordura arte  
txotxongilo moduan erabili zuen emazte-  
gaiak. Agian harreman hura ez zen berak  
nahi izan zuena. Agian beste zerbait nahi  
zuen, eta seguru beste zerbait merezi zuela.  
Amorrua eman zion bere bihotzeko futbol  
taldeak bezperan, hain juxtu emaztegaiare-  
kin hizketatzen zen bitartean, partida galdu  
zuela prentsan irakurtzeak.

Goizero bezala bederatziak hamar  
gutxiagotan sartu zen senargaia lantokira  
eta bezperan amaitu gabe utzitako lanak  
erreparatu zituen. Paper garrantzitsu batzuk  
hirugarren aldiz jarraian eskuetan hartu eta  
ez zekiela zer zen irakurtzen ari zena kontu-  
ratu zenean pentsatu zuen ezin zela kon-  
tzentratu lanean eta zerbait erabaki behar  
zuela erabaki zuen: edo bere barrabilak  
jan eta emaztegaiari ezkontzarena lasaia-  
go pentsatuko zutela esan (arrosa-sorta  
usainduna oparitut, esaterako), edo emaz-  
tegaia pikutara bidali eta behingoagatik  
bere buruaren jabe egin (telefono dei soil  
batekin, adibidez *barkatu, baina, ez zaitut  
gehiago ikusi nahi esanaz*).

Erabakia hartu ezinik zegoela gerturatu zitzaion lankide bat, kafea hartzera lagunduko al zuen galdezka, berarekin joan ohi zen mutila bajarekin baitzegoen eta ez baitzuen atsegin lanetik bakarrik irtetea kafea hartzera. Kafea jada hartu zuela goizean lanera sartu aurretik eta ezetz erantzutea pasa zitzaion burutik, baina zer arraio! Emakume kizkurdun lirain ile beltz baten konpainian kafea hartzeko parada goizero suertatzen ez denez eta, bere baitan emakume hura hain zuzen gerturatu izanaren arrazoiak hausnartzen zituela, baiezkoa eman zion azkenean. Emakumea ez zitzaion, noski, kasualitatez gerturatuko eta emaztegaiarekin bizitzen ari zen egoera ikusirik (hamaikagarren eztabaida zuten, dagoeneko, bezperakoa), ez zegoen aukerak galtzeko moduan. Ateak zabalik uztea zen kontua momentu hartan, nahi zuenak sartzeko aukera izan zezan. Hartu zuen txamarra besaulkitik eta kalera irten zirenean, zakur kaka bat sahiesteagatik okerreko pausoa eman, oreka galdu eta eserleku publiko baten burdinezko besaulkiaren kontra jo zuen buruarekin senargaiak. Odol asko galtzen hasi eta bertan hil zen. Ez emakume kizkurdunak, ez iritsi berri ziren erizainek ezin izan zuten besterik egin.

Emaztegaiak hiru urteko lutoa bete du gaur. Festa eta ospakizunetara joateari utzi zion. Etxean sartuta ematen ditu egunak, irte-teko indarrrik gabe. Senargaiaren heriotzaren errudun sentitzen da moduren batean, ez daki zergatik eta nola baina errudun sentitzen da. Hala sentitu behar duela deritzo. Lagunekin zeuzkan harrenanak etenda dauzka. Zita bakarra izaten du urte osoan, sahiestu ezin duen zita bakarra. Gaurko egunez senargaiak buruarekin jo zuen eserleku publikoan esertzen da, burdina laztanduz. Bera bezain hotz sentitzen du burdina. Arrosa-sorta polit bat uzten du eserlekuan eta malkoak mukizapi beltz batekin lehortzen dituela abiatzen da etxera. ■



## CURRICULUM VITAE

Ereñotzu (Hernani), 1978.

Ereñotzun Oinarrizko Hezkuntza Orokorra egin eta gero Hernanin atera nuen Batxilergoa eta Leioara joan nintzen Kazetaritza ikastera, baina han aurkitutakoa ez zen espero nuena izan eta bigarren mailan ari nintzela utzi nituen ikasketak, lanean hasteko.

Harrez gero lanean aritu naiz, baina gehienetan kontraturik gabe, beraz ezin dut hemen nire laneko esperientzia guztia azaldu. Laburtuz esango dut, tabernaria, ate montatzailea eta kazetaria izan naizela. Irrati munduan esperientzia zabala daukat, Hernaniko irrati librean urtetan aritu naizelako eta Arrosan, irrati ekoizpen zentroan, eta Aztibegia elkarfeentzat lanean aritu naizelako. Prentsa idatzian ere aritu naiz, Nafarkobi enpresarentzat batik-bat.

Aurten aplikazio informatikoen garapenean goi mailako titulua atera dut, bi urteko modulua bukatu ondoren eta langabezia nago oraingoz.

Letren munduan ttikitatik sartu nintzen, oroimena dudanetik irakurtzen baitut eta idazten hamabost bat urterekin hasiko nintzen, nire sozializazio arazoak medio.

Urruzuno literatur sariketa irabazi dut behin (1995), "20 eta 12" poema luzearekin.

1998an Susa argitaletxearen webgunean poema eta narrazio labur batzuk argitaratu nituen (uste dut interneten soilik publikatu den euskarazko lehen bildumetakoa izan zela nirea).

2003an Elkar argitaletxeak "Eguraldiaz hizketan" poema liburua argitaratu zidan.

Aurten, berriz, "Ametsen baratza" Sorgintxuloko gaztetxearen aldeko liburu kolektiboan parte hartu dut izenik gabeko poema luze batekin eta Antsoaingo udalak antolatzen duen Lapurbide literatur lehiaketan euskarazko ipuin onenaren bigarren saria irabazi dut "Pfeiffer doktorearen misterioa" izeneko narrazioarekin.

